



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko otsailaren 4a

8 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzekoa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen (5. or.).
- Foru Lege proiektua, etxebizitza arloko jarduketak finantzatzeko bi kreditu berezi, 2.400.000 eta 1.800.000 eurotakoak, hurrenez hurren, ematen dituen (7. or.).
- Foru lege proiektua, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (8. or.).
- Foru lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (8. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, LOGSEK jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (9. or.).
- Foru Lege proposamena, LOGSEK jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (9. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irrati-komunikazioko instalazioak antolatzea. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (10. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurri buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzeko. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (10. or.).
- Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen arteko aurrea hartzeko neurri buruzkoa. Akats zuzenketa (10. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Izendapena ([11. or.](#)).
- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren prezioak 2002ko ekitaldirako ([11. or.](#)).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Mahaikidea aldatzea ([12. or.](#)).

---

A saila:  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2001eko abenduaren 17an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**Lehena.-** Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu honetaz irizpena emateko ahalmena Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun baliioduneko epea irekiko da, 2002ko otsailaren 22ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzekoa**

Apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legeak Nafarroako Nekazaritza Ganbera zuzenbide publikoko korporazio gisa sortu eta arautu zuen, nortasun juridikoarekin eta bere helburuak lortzeko gaitasunarekin. Horrekin batera, haren egitura eta haren funtzionamendua beharrezko printzipio demokratikoetara egokitu zituen.

1998ko abenduan Nafarroako Nekazaritza Ganberarako hauteskundeak egin ziren. 1999ko otsailaren 24an osatu zen Nafarroako Nekazaritza Ganbera.

Nafarroako Nekazaritza Ganbera berrirako lehenbiziko hauteskunde ondozko esperientzia eta hura osatu zenetik iragan den denbora direla eta, komeni da apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea xeheki aldatzea, bi helburu lortzeko.

Lehenengo eta behin, Ganberaren beraren agintaldia luzatzea, lau urtetik bostera. Horrekin erakundearen funtzionamenduak luzeago irautea lortzen da, baita nekazaritza sektoreko hauteskundeak arrazionalizatzea eta hauteskundeetarako gastuak aurrezte ere, hala Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarendako eta Ogasun Publikoarendako, nola nekazaritzako erakundeendako ere. Foru Legearen aldaketa hau bakarrik 2002ko hauteskunde ondoz osatuko den Ganberari aplikatuko zaio. Gaur egun osaturik dagoenak lau urteko agintaldia bukatuko du.

Bigarren helburua Nafarroako Nekazaritza Ganberaren eta nekazaritzako hauteskundeetarako Administrazioaren aurkako helegite arruntaren aipamenak kentzea da, gaur egun ez baitu indarrik. Haren ordez indarra duen gora jotzeko helegitea aipatuko da, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez legeriara berriz egokitua, horrela

zuzenbide positiboaren koherentzia bermatzen baita.

**Artikulu bakarra.** Aldaketa hauek sartzen dira Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legean:

Lehenena. 4. artikuluko 1 zenbakiko bigarren lerroaldeak idazketa hau izanen du:

“Erabaki eta egintza horien aurka gora jotzeko helegitea jarri ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, aplikatu beharreko administrazio prozeduraren arauetara jarraituz”.

Bigarrenena. 10. artikuluko 1 zenbakiak idazketa hau izanen du:

“Osoko bilkura Ganberaren organo gorena da. Hamazazpi kide izanen ditu, sufragio ireki, berdina, zuzen eta isilpekoaren bidez aukeratu beharrekoak, bost urterako, lanbide-ordezkaritzako irizpideen arabera hautatuak. Kide guztiak hauteskunde prozesu berean hautatuko dira, Nafarroa osoa hartuko duen hauteskunde barruti bakarrean”.

Hirugarrenena. 10. artikuluko 3 zenbakiak idazketa hau izanen du:

“Osoko bilkura eratuko da hauteskunde prozesua amaitu eta hogeita hamar eguneko epearean barruan eta agintaldia bost urtekoa izanen da”.

Laugarrenena. 11. artikuluko 1 zenbakiak idazketa hau izanen du:

“Ganberako Osoko Bilkurak hautatuko du lehendakaria, bertako kideen artean, eraketa bilkuran. Kargualdia bost urtekoa izanen da, osoko bilkuraren kargualdiarekin bat, 10. artikuluko 2. zenbakiko b) idatz-zatian xedatutakoa galarazi gabe”.

Bosgarrenena. 23. artikuluko 2 zenbakiak idazketa hau izanen du:

“Errolda bost urtetik behin berritu beharko da, gutxienez, Nafarroako Nekazaritza Ganberako hauteskunde prozesuarekin bat etorriz”.

Seigarrenena. 23. artikuluko 4 zenbakiak idazketa hau izanen du:

“Erroldan sartu edo bertatik baztertzeko erabakien aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, baina, jarrita ere, ez da etengo hauteskunde prozesua”.

Zazpigarrenena. 26. artikuluko 1 zenbakiak idazketa hau izanen du:

“Nekazaritzako Hauteskunde batzordeko kideen erdiak bost urtetik berrituko dira”.

Zortzigarrenena. 26. artikuluko 3 zenbakiak idazketa hau izanen du:

“Nekazaritzako Hauteskunde Batzordearen erabakien aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, administrazio prozedurari buruzko arauetara jarraituz”.

Bederatzigarrenena. 30. artikuluko idazketa hau izanen du:

“30. artikulua. Zuzenbide-arau osagarriak.

Kapitulu honetan zehaztu gabe gelditu diren hauteskunde prozesuaren inguruko guztietan, zehazki, boto eskubideaz, boto-kontaktaz, emaitzen aldarrikapenaz eta postuak emateaz sortzen direnetan eta, orohar, hauteskunde prozesuan zuzenean nahiz zeharka eragina duten afera guztietan, Hauteskundeetarako Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoa osatzen duten orotariko printzipioak hartuko dira kontuan”.

### **Azken xedapena**

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunean hartuko du indarra. Hala ere, bost urteko agintaldiari buruzko xedapenak Foru Lege honek indarra hartzen duenetik egiten diren lehenbiziko hauteskundeen ondoren osatzen den Nafarroako Nekazaritza Ganberari aplikatuko zaizkio.

## **Foru Lege proiektua, Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Foru Diputazioak, 2002ko urtarrilaren 21ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroan etxebizi-tza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaiz-kien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroan etxebizitza arloko jarduke-ta babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak eza-rri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu honetaz irizpena emate-ko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizi-tza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldiz-kari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2002ko otsailaren 22ko eguerdiko hamabietan** bukatu-ko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko tal-deek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkez-ten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Foru Lege proiektua, Nafarroan etxe-bizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen**

Etxebizitza babestu gehiago eraikitzea da etxebizitzarako politika publikoaren ardatza. Axo-lagabekeria izanen litzateke helburu nagusi hori lortzea zaildu edo ezintzen duten baldintzei eus-tea. Aginte publikoek, batera, babes publikoko araubideetako etxebizitzaren sustapenaren bide-ragarritasuna eta dirusarrera gutxien dituztenen-dako erraztasunak ahalbidetu behar dituzte.

Lehenbiziko helburua lortzeko prezioek eta benetako kostuek bat etorri behar dute elkarrekin. 2001.ean eta aurreko urteetan etxebizitzaren ekoiz-penaren kostuak asko garestitu direnez, zail-zaila izan da prezio mugatuko etxebizitzaren sustapenen bideragarritasuna. Beraz, Foru Lege honetan aurreikusten diren arauekin ez gara saiatzen bakarrik horri buruz dauden azterlan ekonomiko-ondorioak gureganatzen, froga ukaezinen aurrean begiak ireki egin behar baititugu: sustatzaileek prezio mugatuko etxebizitzak eraikitzeko institu-zioek eginiko deiari kasurik egiten ez badiote, esan nahi da gaurko prezioak ez datozela jadanik bat benetako kostuekin.

Izan ere, sustapen horiek etekin gutxi dutenez (edo bat ere ez), sustatzaileak haietatik urrundu egiten dira. Lehenengo eta behin, helburua izanen da eskaintza handitzea baldintza ekonomikoak egokituz. Horrela bakarrik lortzen ahalko da biga-rren helburua, alegia, jorritasuna banatzea, ez urri-tasuna.

Bigarrenik, eskaintza nabarmenki handitutako-an, neurri batzuk hartu beharko dira sektore publi-koak kostuak egokitzeko ahalegin ekonomikoa egin dezan. Hori lortzeko, babes publikoko araubi-deetako etxebizitzak erosten dituztenen batzabes-teko ahalegin ekonomikoak ez du handitu behar. Kontua da erosle bakoitzak laguntza publikoak har ditzala, behar baditu, kostuen garestitzea pagatu ahal izateko moduan. Aldaera bakarrak izanen dira laguntza publikoaren sistemaren barruan bakoitzaren egoera ekonomiko eta fami-liarraren ondoriozkoak. Gainera, errenta tarte bakoitzerako eta aplikatzekoa den arautegian aipatzen den egoera bakoitzerako aurreikusitako

laguntzen handitzea ez ezik, beste neurri batzuk lagungarri izan daitezke, hala nola, oinarri ekonomikoa eta azalerakoa kalkulatzeko neurri mesedegarriagoak hartzea, horiek balio baitute laguntzak zehazteko neurritako. Horretarako, espresuki neurri ekonomiko batzuk hartu asmo dira aurreikusitako inflazioaren ginetik moduluaren handitzea ordaintzeko. Horrela erosleek guztira egin beharreko ahalegin finantzarioa 2001ean egin zutenaren baliokidea izanen da. Neurri horiek nagusiki mailegu kualifikatuen subsidiazioen eta amortizatzeke epeen luzapenaren alde joko dute.

Azkenik, komeni da errealtateari zuzenean aurre egitea, horren arabera lehenagoko aurreikuspenak gaur egun ezin baitira onartu. Nafarroako eskualdeetako eraikuntzako kostuen arteko aldea ez da gaur batere nabarmena. Errealtatea da kostuak oso antzekoak direla, lurzorua erostetik (hori Legeen bidez tasatua baita, gehieneko ehuneko berekin, edozein delarik eskualdea) eraikuntza bera arte. Iruñerrian eta Tutererrian etxebizitza babestuko etxebizitzetarako lurzorua erosteko aldea txikiak hornitzaileendako sarbide errazagoekin eta hurbiltasun handiagoarekin berdintzen dira. Beraz, eskualde horietako eta Nafarroako beste eskualdeetako kostuek berdintasunera jotzen dute. Beraz, eskualdeen arteko bereizketak prezioei dagokionez ez du zentzurik.

Gainera, Foru Legeak tresna objektibo bat sartu du modulu eguneratzeko. Neurri hori oso garrantzitsua da babes publikoko araubideetako etxebizitzak erosten dituztenei segurtasun juridiko handiagoa emateko, irizpide tekniko eta objektiboari jarraituz, eraikuntzan eragina duten kostu errealei lotuz.

**1. artikulua.** Nafarroako etxebizitzarako jarduketa babesgarriei aplikaturiko modulu ponderatua etxebizitzako metro karratu erabilgarriko, 2002ko abenduaren 31 arte, 790,96 eurokoa izanen da.

**2. artikulua.** Nafarroako etxebizitzarako jarduketa babesgarriei aplikaturiko modulu ponderatua etxebizitzako metro karratu erabilgarriko, 2002ko abenduaren 31 arte, 756,90 eurokoa izanen da.

**3. artikulua.** 1. 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera eta hurrengo ekitaldietarako, Nafarroako

Gobernuak formula honen arabera eguneratuko du etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriei aplikatzen ahal zaizkien moduluen zenbatekoa:

$$M' = M \times (1 + (0,725 \times \text{EKI} + 0,275 \times \text{KPI}) : 100).$$

$M'$  = modulu berria

$M$  = aurreko modulu

EKI = eraikuntzako kostuen indizearen ehuneko aldaketa, hileroko azkeneko azpi-indize eza-gunen arabera, aurreko urteko hilabete berekoen aldean. Kostu horiek lan-esku, energia eta materialak izanen dira.

KPI = kontsumorako prezioen indize orokorraren ehuneko aldaketa, indize ezaguneko azkeneko hilabetekoaren eta aurreko urteko hilabetekoaren artekoa.

2. Eraikuntzari buruzko nahitaezko arautegia- ren arabera, kalitate, instalazio, zerbitzu, zerga edo aseguruaren betebeharrak kostuen garestitzea badakarte, Nafarroako Gobernuak garestitze horien oihartzuna artikuluko honetan aurreikusten den formularen aplikazioaren ondoriozko moduluari sartzen ahalko du.

### Xedapen iragankorra

**Lehena.** Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretu baten bidez, 2002. urtean aplikatzekoa den modulua handitzea aurreikusitako inflazioaren ginetik ordaintzeko neurri ekonomikoak onetsiko ditu, babes ofizialeko etxebizitzak erosten dituztenek egin beharreko ahalegin finantzarioa osotora 2001ean aplikatzekoa zen moduluak indarra hartzean egin behar izan zutenaren baliokidea izan dadin.

**Bigarrena.** 2003. urtean aplikatzekoa izanen den modulu kalkulatzeko, 3. artikuluko  $M$  faktorea eraikuntzako benetako kostuen arabera zehaztuko da, Nafarroako Kontuen Ganbarak txostena eman ondoren.

### Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proiektua, etxebizitza arloko jarduketak finantzatzeko bi kreditu berezi, 2.400.000 eta 1.800.000 eurotakoak, hurrenez hurren, ematen dituen**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko urtarrilaren 21ean hartutako erabakiaren bidez, etxebizitza arloko jarduketak finantzatzeko bi kreditu berezi, 2.400.000 eta 1.800.000 eurotakoak, hurrenez hurren, ematen dituen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehen.**- Etxebizitza arloko jarduketak finantzatzeko bi kreditu berezi, 2.400.000 eta 1.800.000 eurotakoak, hurrenez hurren, ematen dituen Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

**Bigarren.**- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Biltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**Hirugarren.**- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Foru Lege proiektua, etxebizitza arloko jarduketak finantzatzeko bi kreditu berezi, 2.400.000 eta 1.800.000 eurotakoak, hurrenez hurren, ematen dituen**

Bizilagunik gabeko etxebizitza multzo bat merkaturatu asmo da. Helburu hori neurri batzuk handituz lortuko da, horien artean, alokairua sustatzea, Administrazioak lagunduta, horrek kudeaketaren, aholkularitzaren eta dirulaguntzen ardura hartuko baitu. Horrela errenta-hartzaileak segurtasuna izanen du bere etxebizitza alokatzean, errentariak etxebizitza aurkitu eginen du eta

kasu batzuetan errenta ordaintzeko laguntza hartu ere bai. Halaber, alokairurako araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak gehiago sustatu behar dira, ez bakarrik sustatzen lagunduz, baizik eta behar larriena duten errentariei ere dirulaguntza bat emanez.

Bestaldetik, bidezko da babes ofizialeko etxebizitzaren sustapena piztea, eraikuntzek, arkitektura bioklimatikoaren printzipioak berengana ditzaten. Horrela, eraikinek energia aurreztuko dute, erosak izanen dira eta haien diseinak aintzakotzat hartuko ditu eguzkia, ikuspegia, eguraldia eta ingurumeneko bestelako kontuak.

Hori dena etxebizitza izateko akuilu bat izanen da, ez nolana hiko gainera, eta eraikuntzaren sektoreari kalitate hobekuntzak ekarriko dizkio.

Horrenbestez, behar hauek betetzeko egoki diren kreditu bereziak ematen dira, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1998 Foru Legeko 44. artikuluan xedaturikoarekin bat.

**1. artikulua.** 2.400.000 euroko kreditu berezi bat ematen da, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak etxebizitza alokairuaren arloan dituen beharrak betetzeko. Kreditu berezi hori 2001eko aurrekontuko "Alokairurako dirulaguntzak" izeneko 320000-32220-4809-431200 kontusailaren bizkar finantzatu da, aurrekontu hori 2002rako luzatu baita.

**2. artikulua.** 1.800.000 euroko kreditu berezi bat ematen da, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak etxebizitzetako bioklimatismoaren arloan dituen beharrak betetzeko. Kreditu berezi hori 2001eko aurrekontuko "Etxebizitzetako bioklimatismoarako dirulaguntzak" izeneko 320000-32220-7800-431202 kontusailaren bizkar finantzatu da, aurrekontu hori 2002rako luzatu baita.

**3. artikulua.** 1. eta 2. artikuluetan aipatzen diren kreditu bereziak 2001eko aurrekontuko "Etxebizitzaren arloko jarduketarako dirulaguntza eta sorospenak. Foru Programa" izeneko 320000-32220-7800-431200 kontusailaren bizkar finantzatu dira, aurrekontu hori 2002rako luzatu baita.

#### **Azken xedapena**

Foru Agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru lege proiektua, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko otsailaren 8ko goizeko bederatziak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege

proiektua 2001eko irailaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Foru lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzekoa**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko otsailaren 8ko goizeko bederatziak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proiektua 2001eko abenduaren

12ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko otsailaren 8ko goizeko bederatziak arte** luza-tzea. Aipatu foru lege proposamena 2001eko irai-

laren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agin-tzea.”

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko otsailaren 8ko goizeko bederatziak arte** luza-tzea. Aipatu foru lege proposamena 2001eko irai-

laren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agin-tzea.”

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irрати-komunikazioko instalazioak antolatzekoa

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Nafarroako Foru Komunitatean irрати-komunikazioko instalazioak antolatzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko otsailaren 8ko goizeko bederatzia arte** luzatazea. Aipatu foru lege proposamena 2001eko

uztailaren 12ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzekoa

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko otsailaren 8ko goizeko bederatzia arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2001eko

irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa

### AKATS ZUZENKETA

2002ko urtarrilaren 25eko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean Etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak argitaratu ziren. Zuzenketan horietan akats bat antzeman da, eta zuzendu egin behar da:

21. orrialdean, 44 zenbakiko zuzenketa Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko

Taldeak aurkeztu zuela esan ordez, hau esan behar du:

“Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua”.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**G Saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko**

### **Izendapena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, besteak beste, ondoko erabakia hartu zuen:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa bukatu da (Mahaiak 2001eko maiatzaren 7an eta ekainaren 25ean hartu zituen deialdi hau argitaratzeko erabakiak, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2001eko maiatzaren 15eko 51. zenbakian eta uztailaren 2ko 74. zenbakian, bai eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere, 2001eko abuztuaren 3ko 94 zenbakian). Epaimahaiak egindako izendapen-proposamena (2001eko abenduaren 29ko 130. NPAO) eta, deialdiaren 7.2. oinarriarekin bat, interesdunak aurkezturiko dokumentazioa ezagututa, ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuko funtzionario, transkriptore lanposturako, izendatzea ondoko izangaia. Izen-abizenak:

SEVINÉ RUIZ, María Mercedes

**2.** Interesdunak hilabete bateko epea izanen du, izendapena jakinarazten zaionetik aitzina, lanpostuaren jabetza hartzeko.

**3.** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

**4.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren prezioak 2002ko ekitaldirako**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun eta gero, ondorengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren prezio berriak onestea 2002ko ekitaldirako. Hona:

• Urteko harpidetza      39,07 euro

• Aleak:

– Aldizkari Ofiziala      0,96 euro

– Bilkura Egunkaria      1,14 euro

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

### Mahaikidea aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

María Asunción Erice EcheGARAY andreak uko egin dio epai-mahaikide izateari bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko lehiaketan (deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean 79. zenbakian argitaratu zen, 2001eko ekainaren 29an). Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatu zuenez, batzorde horrek beste ordezkari bat izendatu du epaimahairako. Horiek horrela, ondorengo ERABAKI DA

**1go.** Onartzea, bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko lehiaketan,

María Asunción Erice EcheGARAY andrearen uko egitea Langileen Batzordeak izendatutako epai-mahaikide izateari.

**2gn.** Aipatutako lehiaketako mahaikide izendatzea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak proposatuta, Nafarroako Parlamentuko legelari Silvia Doménech Alegre andrea. Beraz, deialdiko 5.1 oinarria aldatuta geldituko da.

**3gn.** Erabakia interesdunei jakinaraztea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean nahiz Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat.....	39,07 euro
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa.....	0,96 »
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa.....	1,14 »